

AURKIBIDEA

1. SARRERA

- 1.1- HELBURU OROKORRA
- 1.2- HELBURU ZEHATZAK

2. HAUSPOA PROIEKTUAREN GARAPENERAKO EMANDAKO URRATSAK

3. HAUSPOA PROIEKTUAREN IES ZUBIRI MANTEOKO PROPOSAMENA

- 3.1- IKASTETXEKO PROIEKTUAREN EGITURA
 - 3.1.1. ORDUTEGI BERRIAREN PROPOSAMENA
 - 3.1.2. ORDU LEKTIBOETATIK HARATAGOKO ORDUTEGIAN ZER EGIN
 - 3.1.3. KOORDINAZIOA ETA ERAGILEAK
 - 3.1.4. IKASTETXEKO ZERBITZUAK: JANTOKIA

4. PROIEKTUAREN ADIERAZLE OROKORRAK

5. HELBURUAK

6. JARDUERAK

7. IKASTEKO EZ DEN ORDUTEGIAN, NOLA JOKATUKO DUGU

8. IRAKASLERIAREN DEDIKAZIO-ORDUAK BERRANTOLATZEKO PROPOSAMENA

9. IKASLEEN ETA FAMILIEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK

10. EGITASMOAREN AZKEN ZEHAZTAPENAK

11. BAREMOARI LOTUTAKO HAINBAT ZEHAZTAPEN

12. ERANSKINAK

1- SARRERA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK 2015eko apirilaren 30ko ebazpenaren bitartez, Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe publikoei dei egiten die ikastetxe publikoen barne-antolamendua berriztatzekeo proiektu batean parte hartzeko (HAUSPOA).

Esperientzi honen helburua gaur egun indarrean dagoen esparrua malgutzera da ikastetxeetako hezkuntza-jarduerak eta eskola-denborak berriz antolatzea ahalbideratzeko, beti ere, eskola-arrakasta hobetzearen mesedetan.

Ebazpenean bertan adierazten dira lortu nahi diren helburu nagusiak:

- Eskola-denboraren eredu berriak praktikan jarri eta ebaluatu.
- Ikastetxeen kalitatea hobetu (bikaintasuna), autonomia gehituz.
- Emaizten hobekuntza sustatu.

IES Zubiri-ManteoBHIko Eskola Komunitateak proiektuan sartzeko onurak aztertu ondoren, argi ikusi du proiektuak aukera paregabea eskaintzen diola Eskola Komunitateari, **estamentu guztien arteko lankidetzan ikastetxekoHezkuntza Proiektua hobetzeko**. Izan ere, ikastetxeko helburu nagusiaikasleei kalitatezko heziketa osoa eta aberatsa eskaintzea da.

Gure helburu nagusia irizpide, hona hemen HAUSPOA proiektu propioarekin lortu nahi genituzkeen helburuak:

0.1.-Helburu orokorra

Hezkuntza Proiektuan jasota dugun bezala, IES Zubiri Manteo BHI hezkuntza berrikuntzaren aldekoa da. Era berean, gizartearen beharrei erantzuna eta zerbitzua eman ahal izateko, curriculumaren egokitzapenaren guztiz alde dago. Sailen arteko eta hainbat maila eta prestakuntza zikloen arteko koordinazio pedagogikoa, banakotasuna eta aniztasuna, teknologi berriekiko arreta eta familiekin batera tutoretza lana dira gure proposamena artikulatzen duten ardatzak. Hori dela eta, Hauspoa proiektuan parte hartzeak, gure Hezkuntza Proiektua aurrera eramateko orduan kalitatea hobetzea ekarriko du.

0.2.- Helburu zehatzak

- Hezkuntza Komunitate osoari arreta handiagoa eta era zehatzagoan eskaini, bereziki gehien behar duen ikasleriari (EKITATEA) eta baita gehiago eskatzen duen ikasleriari (BIKAITASUNA)
- Baliabide gehiago eskaini eta ditugun baliabideei etekin handiagoa atera. Eraginkortasuna bilatu arazo akademikoei eta pertsonalei beste modu bateko irteerak ematerakoan.
- Eskola orduz kanpo, lanerako bilgune gehiago eta arreta denbora gehiago eskaini hala nahi duen ikasleriari.

- Hezkuntza Komunitatearen parte-hartze aktiboagoa lortu bai prestakuntza saioak eskainiz gurasoentzat eta baita euren laguntza eskatuz eta gogo onez jasoz **HAUSPOA arratsaldeak** aurrera eramateko garaian.
- Ikastetxeak Hezkuntza Komunitateari eskaini diezaiokeen hornikuntzari etekin gehiago atera, parte-hartzaileen esku hainbat tresna eta gune utziz euren hezkuntza arrakasta bideratzeko.
- Bizikidetza hobetu, arazo-guneak eta arazo-ordu batzuk desagertuz
- Ikasleriaren autonomia gaitasuna landu, bere ikasketa prozesuaren jabe eta erantzule izateko aukera eskainiz.
- **HAUSPOA arratsaldeak** kudeaketa partekatua bultzatu. Ikastetxeak baliabideak jarri eta ikasleen **hezkuntza arrakastan** gurasoen eta ikasleen parte-hartze aktiboa lortu.
- Ikasleriaren **hezkuntza arrakasta** lortzeko ikastetxearen eta gainontzeko gizarte-hezkuntza eragileen arteko harremana sendotu.

1- HAUSPOA PROIEKTUAREN GARAPENERAKO EMANDAKO URRATSAK

Ebazpenean adierazten den bezala, ikastetxeko zuzendariari dagokio esperientzia honetan parte hartzeko proiektua lantzea eta eskaera egitea, eta lanketa honetan emandako urratsak hauek izan dira:

- Zubiri Manteoko klaustroa deitu eta HAUSPOA proiektua azaldu. Bilerak hau 2015ko maiatzaren 13an egin zen eta klaustrakideen oniritzia jaso zuen egitasmoak.
- Zubiri Manteo Institutuko OOGa deitua izan zen 2015ko [maiatzaren 14ean](#) eta bertan ere aipatu proiektua azaldu zitzaizen kide guztiei. Ordezkaritza Organo Gorenak aho batez onartu zuen maiatzaren 28ko bileran.
- Azken urratsa Zubiri Manteoko Guraso Elkarteak HAUSPOA aurkeztea zen. Bertako juntakideek baiezkota eman zioten proiektuan parte-hartzeak, Guraso Elkarteak kideei galdeketa egin ondoren. Eskaera honetan, aurrerago ikusiko duzun moduan, hiru aktak atxikitzen ditugu:
 - Zubiri Manteoko Institutuko Klaustroko akta
 - Zubiri Manteoko Eskola Kontseiluko akta
 - Guraso Elkarteak akta

Ikus daitekeenez, ebazpenaren, bere 4. artikuluan adierazten den moduan, proiektua aurkezteko ezinbesteko eskakizunak betetzen ditugu, hirurek onartu baitute esperimentazio-proiektu honen eskaera egitea.

2. HAUSPOA PROIEKTUAREN IES ZUBIRI MANTEOKO PROPOSAMENA

2.1. IKASTETXEKO PROIEKTUAREN EGITURA

Gure HAUSPOA proiektua IES ZUBIRI MANTEO Institutuak onartua duen HEZKUNTZA PROIEKTUAN islatzen diren helburuekin erabat bat datorrela uste dugu eta gure parte-hartzea onartuzgero, bertan jarritakoak 2015-2016 ikasturteko IKASTURTEKO PLANEAN isla izango du.

Labur bada ere, gogora ekarri nahi dizuet gure HEZKUNTZA PROIEKTUAN nabarmentzen diren atal garrantzitsu batzuk:

Ikastetxearen **helburua edota zeregina** ikasleak bere osotasunean heztea da, gaurko gizartearen erronkei aurre egiteko gai izango direnak.

Hezkuntza honetan, oinarrizko gaitasunak, zientziaren arloko edukiak eta lan ohitura intelektual eta teknikoak hartzeaz gain, garapen harmoniatsua ere bultzatuko da honako hauei dagokienez: afektibotasuna, autonomia pertsonala, auto-estimua, besteekiko, ingurunearekiko eta gure eta beste kulturekiko harremanak izateko gaitasuna, eta jarduera profesionaletan, intelektualetan nahiz aisiakoetan jarduteko gaitasuna.

Eta hau baldin bada, Zubiri Manteoko Institutuak duen zeregin nagusi moduan onartua duena, gure ikastetxea etorkizunari begira modu honetan irudikatzea gustatuko litzaiguke:

Etorkizunari begira Zubiri Manteo Institutua familientzat konfiantzazko ikastetxea izatea lortu nahi dugu, bere profesionaltasunagatik, irudi onagatik eta ideologiaz aparte guztiek euren bezala ikusten dutelako, ondoko alorretan nabarmenduz:

- ✓ antolakuntza,
- ✓ kalitatezko hezkuntza
- ✓ Ikastetxe barruko giro ona
- ✓ eta lan egiteko gaitasuna

Eskola Komunitate abegikorra, laguntzailea eta bizia sortu nahi dugu.

2.1.1. ORDUTEGI BERRIAREN PROPOSAMENA

IES ZUBIRI MANTEO BHI Institutua LOGSE legearen sarreratik hona, Ikastetxe konplexua da, bertan DBH, BATXILLERGOA eta LANBIDE HEZIKETA ematen dituena.

HAUSPOA proiektuaren antolaketa alorrean sartuta, modu honetan antolatzea gustatuko litzaiguke gure proiektua:

- ✓ Ikasleen irakaste ordutegiari dagokionez. 2015-2016. ikasturterako aldaketak proposatu nahi ditugu.

Zubiri Manteo Institutuan, azken ikasturteetan, DBHko ikastetxeetan ohikoa den 30 saioko ordutegia izan beharrean, 31 saio egin izan ditugu. 2015-2016 urterako inguruko ikastetxeek bezala, 30 saio astean ematea erabakita genuen

Manteoko ikasleen ordutegia 2014-2015

2015-		ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	2016
	1	08:30 – 09:25	08:30 – 09:25	08:30 – 09:25	08:30 – 09:25	08:30 – 09:25	
	2	09:25 – 10:20	09:25 – 10:20	09:25 – 10:20	09:25 – 10:20	09:25 – 10:20	
	3	10:20 – 11:15	10:20 – 11:15	10:20 – 11:15	10:20 – 11:15	10:20 – 11:15	
		11:15 – 11:40					
	4	11:45 – 12:40	11:45 – 12:40	11:45 – 12:40	11:45 – 12:40	11:45 – 12:40	
	5	12:40 – 13:30	12:40 – 13:30	12:40 – 13:30	12:40 – 13:30	12:40 – 13:30	
	6	15:00 – 15:55	15:00 – 15:55		15:00 – 15:55		
	7	15:55 – 16:50	15:55 – 16:50		15:55 – 16:50		

Ikus		ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
	1	08:30 – 09:25	08:30 – 09:25	08:30 – 09:25	08:30 – 09:25	08:30 – 09:25
	2	09:25 – 10:20	09:25 – 10:20	09:25 – 10:20	09:25 – 10:20	09:25 – 10:20
	3	10:20 – 11:15	10:20 – 11:15	10:20 – 11:15	10:20 – 11:15	10:20 – 11:15
		11:15 – 11:40				
	4	11:45 – 12:40	11:45 – 12:40	11:45 – 12:40	11:45 – 12:40	11:45 – 12:40
	5	12:40 – 13:35	12:40 – 13:35	12:40 – 13:35	12:40 – 13:35	12:40 – 13:35
	6	13:35 – 14:30	13:35 – 14:30	13:35 – 14:30	13:35 – 14:30	13:35 – 14:30

- ✓ Asteko egun guztietan ordutegi bera jarraitzen dugu.
- ✓ Ez dugu sarrerako ordutegia aldatzen.
- ✓ Saioak 55 minututakoak dira.
- ✓ Jolastordu bakarra egingo dugu 30 minutukoa
- ✓ Asteko 30 orduak irakaste ordutegi berri honetan honela antolatzen ditugu:
 - o Egunero 6 ordu, gorago jarritako ordutegi horretan eskainiko dira: 6 saio 55 minututakoak = 330 minutu. Jolastordua = 30 minutu
Guztira egunero = 360 minutu (6 ordu)
 - o DBH mailan eskaini behar diren gutxiengoak hauek dira: 175 eskola egun eta 1.050 irakastordu. Irakastordu berri honek, gure eginbeharrekoetan murrizketarik ez duela izango modu honetan argitzen dugu:
 - o IES Zubiri Manteo Institutuak onartu berri duen datorren ikasturterako egutegiak ikasleentzat 175 lan egun adierazten ditu.

o 1.050 ordu, modu honetan betetzen ditugu:

6 ordu/egunero x 175 eskola egun ikasleentzat = 1.050 ordu

EBAZPENEAN bestalde, 6.artikuluko a.2) atalean irakasteko ez den ordutegiaren proposamenaz mintzo da. HAUSPOA proiektuak Zubiri Manteo Institutuan honako zutabeak izatea da gure helburua.

2.1.2. ORDU LEKTIBOETATIK HARATAGOKO ORDUTEGIAN ZER EGIN

Ikasleentzako arreta pertsonalizatua:

- Errefortzu eta laguntza jardunak bai EKITATEA eta baita BIKAINTRASUNA lortu nahian.
- Ikasleriari baimendutako eta zaindutako/lagundutako ikasgelak eskaini.
- Ikastetxeko Guraso Elkartearen eskutik edota ikastetxetik kanpo leudekeen beste erakundeen eskutik jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak antolatu eta eskaini.

Gurasoentzako arreta pertsonalizatuagoa:

- Gurasoekin elkartzeko guneak ere izango dira gure HAUSPOA arratsaldeak.
- Nahiz eta orain arte ere egiten genuen, arratsaldeak izanik gurasoekin egoteko une aproposagoak, hauek hobeto aprobetxatzen saiatuko gara. Honek ez du kentzen goizetan ere beraiekin elkartzea, une egokiagoak baldin badira.
- Honetarako PARTEKATUTAKO TUTORETZA proiektua indartuko dugu

Irakasleriaren koordinazioa.

Atal honetan, hauxe da aurreikusten duguna.

Asteazken arratsaldez gain, astearte arratsalde batzuk erabiliko ditugu honetarako:

- Egiten ditugun ikasleriaren aurre-ebaluazio eta ebaluazio saioak modupausatu eta sakonago batean egiteko.
- Ikasgelako eta ikasmailako bilerak bultzatzeko. Ikasgelako eta ikasmailako irakasleen bilguneari garrantzi gehiago eman nahi diogu irakasleen ezagutza eta modu honetara bere laguntza tresnagehiago izan ditzagun.
- Premiarik balego eta izango dela aurreikusten dugu, MINTEGIAK berriro elkartzeko, asteroko bigarren ordua izateko alegia, gune egokia izan daiteke. Premia ikuspegi honetatik ikusten dugu: ikasleriari eskaini behar zaiona nolabait PROGRAMATU beharra dago eta honek mintegi bakoitzaren orain arteko funtzioa zabaltzea eta aberastea dakar.

2.1.3. KOORDINAZIOA ETA ERAGILEAK

Koordinazioa: Arratsaldeetako ekintza hauek koordinatzaileak izango dute, eta gainera batzorde batean egitasmo osoaren jarraipena egingo da, koordinatzaileak bilduta. Batzorde honetan gurasoak, irakasleak eta zuzendaritza taldeko kide bat gutxienez egongo dira.

Beste eragileak: Aipatutakoez gain, ikastetxean badaude bestebatzuk arratsaldeko jarduera hauetan era batean edo bestean eragin behar dutenak:

- **Orientatzailea:** bereziki egoera larrian dauden ikasleei zuzendutako ekintzak antolatzeko eta jarraitzeko
- **Bizikidetza arduraduna:** egitasmoan bizikidetza helburuak bideratzeko
- **Normalkuntza arduraduna:** esparru honetan euskararen erabilera indartzeko
- **IKT arduradunak:** bere arlo honetan proposamenak bideratzeko.

2.1.4. IKASTETXEKO ZERBITZUAK: JANTOKIA

HAUSPOA proiektuak ere Hezkuntza Komunitate osoa eta ikastetxearen zeregin integrala bere baitan hartzen duenez, helburuekin eta adierazleekin eta abarrekin sartu aurretik, egokia dela uste dugu irakastorduetatik kanpo geratzen diren zerbitzuak nola antolatuko ditugun jakinaraztea.

2015-2016 ikasturterako HAUSPOA proiektua onartuz gero, JANTOKI zerbitzua bermatuko dugu.

JANTOKI zerbitzua honela antolatuko dugu:

- o Ikasleek osoan 14:30ean amaitzen dituzte euren goizeko irakastorduak.
- o Bazkaltzeko ordutegia: 14:30-15:15 gutxi gora-behera.

3. PROIEKTUAREN ADIERAZLE OROKORRAK

Ebazpenean agertutako hiru helburu nagusiei lotutako adierazle orokorrak ondoren zehazten direnak izan daitezke. Helburu zehatzagoak eta berauei jarritako adierazleak ostean datoz.

2015-	HELBURUA	ADIERAZLEA	TRESNA	KOPURUA	2016
	Eskola-denbora eredu berriak praktikan jarri eta ebaluatu	Hezkuntza Komunitatearen asebetetasuna neurtu eredu berri honekiko	Asebetetasun inkestak: - o Gurasoentzat - o Ikasleentzat - o Irakasleentzat	Jasotako inkestak batz bestekoa 3,5 – 4 bitartean izatea. Inkesta 1-5 bitartean antolatuko da.	
	Ikastetxearen kalitatea hobetu – bikaintasuna – autonomia gehituz	Hezkuntza Komunitatearen asebetetasuna neurtu. Jasotako arreta eta ikastetxeko Kide izatearen atsegintasuna neurtu	Asebetetasun inkestak: - o Gurasoentzat - o Ikasleentzat - o Irakasleentzat	Jasotako inkestak batz bestekoa 3,5 – 4 bitartean izatea. Inkesta 1-5 bitartean antolatuko da	
	Emaitzen hobekuntza sustatu	Proiektu hobekuntza	Aurre-ebaluazioak, ebaluazioak eta ez-ohiko ebaluazioak	Eskola emaitzak hobetu: modu kuantitatibo eta kualitatiboan	

Diagnosi bat egin HAUSPOA egitasmoren inguruan, ahuleziak eta indar-guneak antzemateko

HAUSPOA egitasmoan egin beharreko moldaketak eta aldaketak proposatu, beti ere jarritako helburuei hobeto heltzeko.

4.- HELBURUAK – ADIERAZLEAK – EDUKIAK – JARDUERAK – BALIABIDEAK - PERTSONAK				
HELBURUAK	JARDUERAK	ADIERAZLEAK	BALIABIDEAK	PERTSONAK
Ikasleentzako arreta pertsonalizatua indartu	Errefortzu etala guntzajarduerak antolatu EKITAT EA eta BIKAIN TASUNA kontuan hartuta	HAUSPOA arratsaldeak oitzean errefortzu/hobekun ntza saioak izatea. Betetzemailea %100a	Mintegiak Testuliburuak Eskola 2.0 ordenagailuak ...	Irakasleria Pertsonalez dozentea Guraso laguntzaileak
	Ikasleei baimendutako eta zaindutako/ lagundutako ikasgelak eskaini	Ikasgelak ikasleeneskuutzi. i. Irakasle bat ikasgelabako itzean berma tu. Betetze maila %100a	IKT 1 gela IKT 2 gela Biblioteka Teknologia/Plastika gela. Ikasgelaren bat. ...	Irakasleria Guraso laguntzaileak
	Ikasleei jarduerak osagarriak eskaini HA USPOA arratsaldeetan	Erakunde eskaintzen diz kiguten ekintzetatik batzuk arratsal de hauetan eskaini. Betetzemailea = eskaintako %25a arratsaldeetan ahalb ideratu	Erakundeek lizatutako eskaintzak . Geu erakunde eieskatutakoak	Irakasleria Proiektu desberdinetako ir akasleak Ikastetxerako datozen hizlari ak
	Ikasleei Guraso Elkartek edota beste erakunde batek antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak eskaini	Guraso Elkartek diseinat utako eskaintza irakasleria h elazietan parte hartzea n animatu. Betetze maila = ikasleen %25a gutxienez parte hartzea		

HELBURUAK	JARDUERAK	ADIERAZLEAK	BALIABIDEAK	PERTSONAK	OHARRAK
Gurasoentzako arreta pertsonalizatua indartu	Gurasoekin aurrez aurreko bilerak bultzatu eta indartu	Gurasoekinegindakobil eren %50a aurrez aurreko aiza atea. Betetze maila = %100a	Telefono deia Zita-orrria Ikastetxea	Gurasoak Tutoreak Irakasleak	
	Partekatutako tutoretza egitasmoan irakasle gehiagoinplikatu	Egitasmo honetan parte hartu koduten irakasle kopurua %90a izatea. Betetze maila = %100a		Irakasleak Mailako tutoreak Ez diren irakasleak	
Irakasleriaren koordinazio maila areagotu	Ikasturte hasieran gurasoei ahalia honen berri eman eta familiabakoitz aribere seme/alabarentutoreazein de jakinarazi.	Gurasoei euren seme/al abarentutoreazein de jakinarazi. Betetze maila = %100a	Ikasturte hasierako bilera Gurasoentzateskutitzal irakasleontzat NORBANAKOTUTORETZAdoku mentua	Gurasoak Irakasleak Ikasketa Burua Zuzendaria	
	Aurre- ebaluazioak eta ebaluazioak asteart e eta asteazkenetan egin	Betetze maila = %100a	Ikasketa Burutzatikegindakodeia diaketa aktak	Irakasleria Ikasketa Burutza	
	Ikasmailako edo ikastaldeko bilera burutu eta indartu	Ikastaldeko bilera egin gutxienez ikasturtean. Be tetze maila = %100a	Ikasketa Burutzatikegindakodeia diaketa aktak	Irakasleria Ikasketa Burutza Tutoreak	
	Mintegiek, hala behar izanez gero, arratsalderan bat erabili HAUSPOA egitasmoa hobeto koordinatzeko	Mintegi bilera gehiago egin. Honetarako erabiltzen dugun orduko kopurua %25a igo. Betetze maila = %100a	Mintegi bileretako aktak Mintegiburuendeialdiak	Mintegi buruak Mintegi kideak Ikasketa Burutza	

5- JARDUERAK PARTE HARTUKO DUTEN IRAKASLEAK – PERTSONA ARDURADUNAK – IKASLE HARTZAILEAK

JARDUERAK	PARTE HARTUKO DUTEN IRAKASLEAK	PERTSONA ARDURADUNA	IKASLE HARTZAILEAK
Errefortzu eta laguntza Jarduerak antolatu EKITATEA eta BIKAINTRASUNA kontuan hartuta	Irakasleria guztia Bereziki arlo instrumentaletako irakasleak (Euskara – Gaztelania eta Matematika).	Proiektuetako arduraduna Ikasketa Burua Zuzendaria	Borondatez datozenak Irakasgairen batean/batzuetan laguntza behar dutenak Irakasgairen batean/batzuetan gehiago ikasi nahi dutenak
Ikasleei baimendutako eta zaindutako/lagundutako ikasgelak eskaini			
Ikasleei jarduera osagarriak eskaini HAUSPOA arratsaldeetan Ikasleei Guraso Elkarreak edota beste erakunde batek antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak eskaini			

JARDUERAK	PARTE HARTUKO DUTEN IRAKASLEAK	PERTSONA ARDURADUNA	IKASLE HARTZAILEAK
Gurasoekin aurrez aurreko bilerak bultzatu eta indartu.	Irakasleria	Tutoreak	Guztiak Familiak
Partekatutako tutoretza egitasmoan irakasle gehiago inplikatu.	Tutore guztiak Norbanako tutore guztiak	Ikasketa Burua Zuzendaria	
Ikasturte hasieran gurasoei ahalegin honen berri eman eta familia bakoitzari bere seme/alabaren tutorea zein den jakinarazi.	Ikasketa Burua		
Aurre-ebaluazioak eta ebaluazioak astearte/ostegun (txandakatuz) eta asteazkenetan egin.	Irakasleria guztia Tutoreak	Mintegi buruak	Guztiak
Ikasmailako edo ikastaldeko bilerak burutu eta indartu.	Norbanako tutoreak	Ikasgelako tutorea	
Mintegiek, hala behar izanez gero, arratsalderen bat erabili HAUSPOA egitasmoa hobeto koordinatzeko	Mintegi buruak Mintegi kideak	Ikasketa Burua	

6- IKASTEKO EZ DEN ORDUTEGIAN, NOLA JOKATUKO DUGU

HAUSPOA PROIEKTUAREN OINARRIZKO MARKOA

- Astelehenetan, astearteetan eta ostegunetan eskainiko genuke
- Asteazkenak irakasle on prestakuntzarako utziko genituzke.
- HAUSPOAREN ordutegia
 - o 15:15 – 16:30 jarritako egunetan
 - o Saioak antolatu arren, ikasle bakoitzak bere HAUSPOA ordutegia antola dezake eskaintzen zaizkion saioetan parte hartu ala ez erabakiz, honetarako, behar izanez gero, arloetako irakasleen eta orientatzailearen aholkua izango du.
 - o Saioetan parte hartu ez arren, edozein ikaslek Institutuak eskaintzen dizkion gela eta hornikuntzak erabili ahal izango ditu, bere lanak bukatzeko edota bere autoikaskuntzarako.
 - o Bai programatzen diren saioetan eta baita eskura jartzen diren geletan beti irakasle edo arduradunen bat izango da.
 - o ***Arduradunak GURASOAK ere izan daitezke. Ikasturte hasieran gurasoei laguntza eskaera luzatuko zaie. Prest leudekeen gurasoekin bilera bat egingo genuke euren lana antolatzeko – zer egin, noiz egin, nola egin... -***
- **HAUSPOAREN barruan, arratsaldeetan hauxe egin daiteke:**
 - o Indartze tailerrak antolatu
 - o Bibliotekaren erabilera autonomoa bultzatu
 - o Ikaste gelen erabilera bultzatu: Plastika gela erabili
 - o Tutoretza partekatua indartu bai ikasleekin eta baita gurasoekin ere
 - o Tarteka borondatezko ekintzak burutu: hitzaldiak, tailerrak ...
 - o Guraso Elkartearekin batera eskolaz kanpoko ekintzak indartzen saiatu o Ikasleriaren antolaketa autonomoa bideratzeko guneak eskaini
 - o Gurasoentzat ikasturte osorako hitzaldi/tailerrak antolatu. Prestakuntza eskaini
 - o Gurasoentzat eurentzat, antolatu nahi dituzten ekintzetarako Institutuko gela eta hornikuntza eskaini

HAUSPOA ARRATSALDEETAKO EGITURAKETA

	HAUSPOA SAIOA	KOORDINAZIO ARDURA
Astelehena	Arratsalde sozio-linguistikoa • Euskara • Gizarte • ... Biblioteka (norbanako irakurketa) IKT 1 eta IKT 2 gela Talde lana egiteko gela: Plastika gela Teknologia gela - ...	Ikasketa Burutza Ikasketa Buruak ikasgela bakoitzean izango dena izendatuko du ikasturte hasieran
	Tutoretza partekatua: • Ikaslearekin • Ikaslearen gurasoekin Arratsalde zientifiko-teknologikoa • Matematika • Zientziak • Teknologia • ... Biblioteka (norbanako irakurketa) IKT 1 eta IKT 2 gela Talde lana egiteko gela: Plastika gela – Teknologia gela - ...	Ikasketa Burua Orientatzailea Ikasketa Burutza Ikasketa Buruak ikasgela bakoitzean izango dena izendatuko du ikasturte hasieran
*Asteartea	Tutoretza partekatua: • Ikaslearekin • Ikaslearen gurasoekin	Ikasketa Burua Orientatzailea
*Osteguna	Arratsalde sozio-linguistikoa • Gaztelania • Ingelesa Biblioteka (norbanako irakurketa) IKT 1 eta IKT 2 gela Talde lana egiteko gela: Plastika gela – Teknologia gela - ...	Ikasketa Burutza Ikasketa Buruak ikasgela bakoitzean izango dena izendatuko du ikasturte hasieran
	Tutoretza partekatua: • Ikaslearekin • Ikaslearen gurasoekin	Ikasketa Burua Orientatzailea

*Astearte/ostegun batzuk ere AURREBALUAZIOAK eta IKASMAILAKO bilerak egiteko erabiliko ditugu. Txandakatuko ditugu asteo egunak beti irakasgai beraiek ez kaltetzeko.

7- IRAKASLERIAREN DEDIKAZIO-ORDUAK BERRANTOLATZEKO PROPOSAMENA

Zubiri Manteo Institutuko egoera kontuan hartuta, 2014-2015 ikasturtekoa alegia, haxe izan daiteke hurbilketa:

- Aurten 50 irakasle ari gara lanean DBHN.
- HAUSPOARI gutariko bakoitzak astean ordu bete emango dio. Dena den 20 ordu gutxienez eskainiko dizkio ikasturtean zehar
- Ordu horiek modu honetan banatzen dira:
 - Batzuk ikasleei Hezkuntza Arreta modu zuzenean emanez: Euskara, Gaztelania, Matematika, Natur Zientziak, Teknologia, Fisika-Kimika, Gizarte, Ingelesa
 - Beste batzuk leku komunetan egonda eta ikasleei beste modu bateko laguntza emanez: talde lanetan, hornikuntzaren erabileran...
 - Beste batzuk berriz tailerrak eskainiz. Ikus Entzunekoak, Artea...
 - Ohiko antolaketa haxe izan daiteke: mintegi desberdinetako irakasleak arratsaldea aurrera ateratzeko

Jarritako honetaz guztiaz gain, beste zeregin hauek ere izango dute lekua HAUSPOA arratsaldeetan:

1. Gurasoekin bilerak
2. Orientazio bilerak
3. ...

Gurasoekin egin beharreko prestakuntza saioak edota tailerrak HAUSPOA proiektuaren barruan egon arren, beranduago egin beharrekoak dira gurasoen lan-orduak direla eta. Aipatu saioak GURASO ELKARTZEAREKIN batera bideratzeko ahalegina egingo genuke **GURASO Eskolaren ideia indartuz**.

HAUSPOA: Irakasleen parte-hartzea zertan datza?

- Klaustrokide bakoitzak 20 ordu urtean zehar eskainiko du arratsaldean behar duten ikasleei Hezkuntza Arreta eskaintzeko, bai modu zuzenean eta baita zeharka ere
- Guztira, gutxienez 50 irakasle baldin bagaude eta gutariko bakoitzak 20 ordu zeregin honetarako eskaintzen baditu, HAUSPOA proiektuari eskainiko dizkiogun ordu kopurua haxe da: 1000 ordu
- Astean 23 ordu beteko genituzke: 17 lektibo + Hauspoa + Gurasoentzat ordua + Mintegi ordua + Prestakuntza ordua (ikasturtean zehar 20 ordu gutxienez HAUSPOA egitasmoari, berrikuntza proiektuaren barnean) + Zaintza orduak

Berrantolaketa honetan irakasleen lan-baldintzak errespetatzen dira eta honela ikasleentzat proposaturiko guztia, irakas-jarduerak eta gainontzekoak, irakasleen oniritziarekin egin dira. Marko orokor honen barruan, zuzendaritza-taldeak irakasleen dedikazio-araudia aplikatzerakoan formula berriak erabiltzea eta berauek irakasleriarekin adostea aurreikusten du.

Litekeena da irakasle batzuen dedikazioa HAUSPOA arratsaldeetan beste batzuen baino handiagoa izatea. Honelako egoera batean zuzendaritza-taldeak ikusiko du irakasle horrekin edota irakasle talde horrekin nola jokatu, beti ere dedikazio-orduetan murrizketarik izan gabe baina ahaleginari zor zaion begirunea azalduz.

8- IKASLEEN ETA FAMILIEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK

Proiektu honen garapenean familien adostasuna eta parte-hartzea ezinbestekoak izango dira eta hasiera-hasieratik oso beharrezkotzat jo izan da gurasoen inplikazioa lortzea eskolaz kanpoko jardueren eskaintza erakargarria antolatze aldera.

Irakasteko ez diren jardueretan ikasleen parte-hartzea ahal den eta handiena bultzatu nahi dugu, jakinda, aukerakoa dutela parte-hartze hori eta familien esku geratuko dela euren seme-alabek ikastetxeak antolatutako jardueretan parte hartzea edota denbora hori beste zeregin batzuetan ematea.

Guk geure aldetik familien inplikazioa sustatzeko estrategiak martxan jarriko ditugu, esaterako:

- ⇒ Ikasturte hasierako Guraso Bileran HAUSPOA proiektuaren berri eman eta HAUSPOA arratsaldeetan parte hartzearen garrantzia azpimarratu.
- ⇒ Tutore eta norbanako tutoreen bitartez, arratsalde hauetan egon beharko liratekeen ikasleen zerrenda egin eta euren gurasoei eskaintzaren eta premiaren berri eman.
- ⇒ Datozen ikasleekin eta euren familiekin KONPROMISO IDAZKIA sinatu. Konpromiso honek, ikaslea modu erregularrean ikastetxera etorriko dela bermatuko du.
- ⇒ Ikasleei, guztiei, zuzendutako proposamen hau borondatezkoa izanda, bere betebeharrak betetzen ez dituen ikaslea eta denbora pasan badabil edota arazo sortzaile bada, arratsalde hauetatik kanpo gera liteke.
- ⇒ Ikastetxeak, bestalde, bere eskuan dituen tresna digital guztiak erabiliko ditu arratsalde hauetan landuko dena edo egingo dena publizitzeko. Honetara, web orrialdea eta gainontzeko komunikazio bideak erabiliko ditugu ikasleei jakinarazteko zer, noiz eta non izango den.

Garrantzitsua izango da familien parte hartzea euren seme-alaben erabakian eta garrantzitsua da ere honelako proiektu integral batean Guraso Elkarteak eskainiko dituen Eskolaz Kanpoko jarduera multzoa.

9- EGITASMOAREN AZKEN ZEHAZTAPENAK

HAUSPOA proiektuak, proiektu berritzaile den heinean, hezkuntza komunitatearen atal desberdinen arteko **lankidetzak** bultzatuta egon behar den aldaketa eskatzen du; hau da, Zuzendaritzaren, irakasleen eta gurasoen arteko lankidetzak, **guztion ahalmenak gehituz**.

Hezkuntza komunitate honen helburu nagusia: IES ZUBIRI MANTEO BHI INSTITUTUKO IKASLEEN ESKOLA-ARRAKASTA HOBETZEA da, eta helburu berbera duten desberdinen arteko lankidetzak proposatzen dugu.

1. HELBURUAK

- Ikasleen BIKAINASUNA bultzatu, EKITATEA Institutuko irakasleei utzita, haien profesionaltasuna eta ezaguera kontuan harturik.
- Ikastetxeak Hezkuntza Komunitateari eskaini dizkioten hornikuntzari etekina ateratzea, batez ere gelei, ordenagailuei, bideo-audio ekipamenduei...

2. ORDUTEGIA ETA GAIAK

⇒ **15:00 - 16:30: irakasleen zuzendutako ekintzak**

Tarte honetan ikasleek arreta beharko dute. Aukerak:

- Institutuko irakasleen arreta izan.
- AMPAK jarritako pertsona baten laguntza izan.
- Institutuko ikasle ohien edota Batxilergoko ikasleen artean lan-poltsa bat sortzea pentsatu da zaintza eta laguntza zerbitzua emateko.

⇒ **16:30 - 17:30: eskolaz kanpoko ekintzak, baita asteazkenetan ere**

IES ZUBIRI MANTEOKO Guraso Elkarteak orain arte eskaini dituenak, eta aurrerantzean bideratu nahi dituenak: kirolak...

Ezin da ahaztu, Eskolaz Kanpoko ekintzen eragileak asko direla eta gure ikasleak beste zeregin batzuetan ere murgiltzen direla arratsalde partean, esaterako:

Musika Eskolak antolatutako musika klaseetan.
EKT taldeak antolatutako kirol jarduera desberdinetan.

Bestalde, interesgarria litzateke, sor daitezkeen eskolaz kanpoko jardunetan, IKASLEEI beraiei galdetzea zer duten gustuko eta zer antolatzea gustatuko litzaiekeen. Behin hau jakinda, ez da baztertzen ere BERAIEK IZATEA ekintza hauetariko bat/batzuk antolatu eta jarraipena egingo diotenak.

3. BALIABIDEEN ERABILERA

Ekintza horiek guztiak aurrera eramateko ikastetxean dauden baliabideak eskura izango dituzte: ikasgelak, plastikagelak, laborategiak, informatika gelak, liburutegia..., eta barruan dauden tresneriak ere bai.

Baliabide guztiak ikasleen hezkuntza arrakasta bideratzeko erabiliko dira. AMPA arduraduna izango da.

4. PROIEKTUAREN JARRAIPENA: ADIERAZLEAK

Adierazle neurgarriak, eskuragarriak eta erronka suposatzen duenak ezartzea garrantzitsua da.

Adierazle hauen jarraipena egin eta aztertu egin behar dira.

Hasieran asteroko segimendua beharko da, behar diren aldaketak sartzeko.

Behin sistema egonkortzen denean, segimendua hilerokoa izatera pasatuko da.

Adierazleak mota desberdinetakoak izango dira:

- o Ikasleen parte hartzea.
- o Ekintzen balorazioa: inkesta baten bidez neurtu daiteke asetze maila:

HAUSPOA arratsaldetan parte hartzen duten ikasle guztiek, inkesta bat erantzun behar izango dute.

Familien Asetze-gradua analizatzeko beste inkesta bat prestatu beharko da.

HAUSPOA proiektu honen eskaera egiteko zuzendaritza-taldeak bere konpromisoa eta lidergoa jasoaz, sektore guztietako ordezkarien iritziak eta ekarpenak bildu ditu eta proiektuaren informazioa eskola-komunitate osoari eman dio eta beraien oniritzia jaso du.

IES ZUZBIRI MANTEO BHI Institutua proiektuaren etengabeko jarraipena egiteko Berritzeguneko erreferentziazko aholkulariarekin batera prest agertzen da eta baita proiektuaren azken ebaluazio-prozesua ikuskaritzarekin batera egiteko ere.

10- BAREMOARI LOTUTAKO HAINBAT ZEHAZTAPEN

Aurkezten dugun proiektu honetan, baremoari lotutakoetan, hauxe adierazi nahi dugu:

ZUBIRI MANTEO Institutuak lau urtetarako ZUZENDARITZAPROIEKTU EGONKORRA onartua duela orain 2 urte.

Irakasleen parte hartzea proiektu honetan %100 da Batxilergoan eta DBHN jardunaldi osoz ari garenon artean.

Ikastetxeko Guraso Elkarteak antolatuko dituen eskolaz kanpoko jarduerak Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuarekin koherenteak dira.

Proiektuaren konplexutasuna eta garrantzia kontuan izanda, **Jarraipeneta Hobekuntza Batzordea** sortuko dugu ikastetxean datorren irailean. Batzorde hau osatuko dute:

- o Zuzendaria : Esther Davo Urrestarazu
- o Ikastetxeko proiektuaren arduraduna: Arantza Iztueta Arratibel
- o Ikastetxeko Guraso bat:
- o Ikastetxeko ikasle bat:
- o Ikastetxeko irakasle bat:
- o Berritzeguneko aholkularia:
- o Ikuskaria: Amancio Paniego

11- ERANSKINAK

- o OOGaren onarpen Akta.
- o Klaustroaren onarpen Akta
- o AMPAREN onarpen akta
- o Irakasleen atxikimendua